Lan-eskaintzen erregistroa 2021eko abuztuan

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2021eko abuztuan Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 624 izan da, uztailean baino 308 gutxiago eta joan den urteko abuztuan baino 254 gehiago. Egunean bataz bestez 28 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino 14 eskaintza gutxiago egunean.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2021eko abuztuan 114 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 269 Gipuzkoan eta 241 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 43,1 Gipuzkoako KAUetan erregistratu dira, % 38,6 Bizkaikoan eta % 18,3 Araban.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 24,5 murriztu dira eskaintzak (37 eskaintza gutxiago); Gipuzkoan % 31,2 murriztu dira eskaintzak (122 gutxiago) eta Bizkaian % 38,2 (149 gutxiago).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 42 eskaintza gehiago erregistratu dira, % 58,3ko hazkundea, Gipuzkoan % 136,0 hazi dira (155 eskaintza gehiago), eta azkenik, Bizkaian % 31,0 hazi dira (57 eskaintza gehiago).

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. % 24,1a hirugarren sektoreko profilerako erregistratu dira (150eskaintza); eta, % 19,4a zientzia teknikarien profilerako (121 eskaintza). Kualifikatu gabeko, tekniko laguntzaileen eta industriako langileen profileko lan eskaintzek, ere, pisu nabarmena dute; 111, 85 eta 69 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak, lehen sektorekoak eta zuzendariak izan dira, 6 eta 3 eskaintza hurrenez hurren.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, eskaintza guztiak murriztu dira, lehen sektoreko profilekoak izan ezik (2 eskaintza gehiago). Balore absolutuetan gehien murriztu den profila industriakoa izan da (907 eskaintza gutxiago, % 56,6ko murrizketa). Balore erlatiboetan, aldiz, lehen operadoreen profileko eskaintza izan dira gehien murriztu direnak (% 60,2ko murrizketa, 50 eskaintza gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, eskaintza guztiak hazi dira zuzendarienak izan ezik; hauek 1 gutxiago erregistratu dira. Balore absolutuetan, hirugarren sektoreko profileko eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (74 eskaintza gehiago, % 97,4ko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, operadoreen profilekoak izan dira (% 158,1eko hazkundea, 68 eskaintza gehiago).

• KONTRATU MOTA



Erregistratutako lan-eskaintzen % 13,5ek kontratu mugagabea eskaini dute; % 86,2k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,3ak, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 84 izan dira, aurreko hilabetean baino 61 eskaintza gutxiago. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 246 eskaintza gutxiago erregistratu dira: 538 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan hazkundea % 31,4koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2021eko abuztuan 2 izan dira, aurreko hilean baino 2 gutxiago.

Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 41 gehiago izan dira (% 95,4ko hazkundea), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 65,5hazi dira; 213 eskaintza gehiago, eta, merkataritzako kontratuak, aldiz, kopuru berdina erregistratu da.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA



2021eko abuztuan erregistratutako lan-eskaintzen 3 laurdenek (481eskaintza, % 77,1) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 13,6k (85 eskaintza) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 1,9ko pisua dute (12 eskaintza) eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenen pisua % 0,3koa da (2 eskaintza).

Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza guztiak murriztu dira. Gehien murriztu direnak, balore absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko denbora eskatzen duten eskaintzak izan dira (227 eskaintza gutxiago, % 32,1eko hazkundea); aldiz, balore erlatiboetan, 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen duten eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak (% 50,0ko murrizketa, 2 eskaintza gutxiago).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, 6 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira hazkunde handiena izan dutenak balio absolutuetan (194eskaintza gehiago, % 67,6ko hazkundea); balore erlatiboetan, ordea, 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen duten eskaintza izan dira gehien hazi direnak (% 118,0ko hazkundea, 46 eskaintza gehiago). 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen duten eskaintzak 1 gutxiago erregistratu dira.

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 6 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hilean bezain beste.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 10,9k zehazten du datu hori (624 eskaintzetatik 68). 68 eskaintza horietatik, 53 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 15ek, lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 58 gutxiago izan dira uztailarekin alderatuz, hau da, % 52,3 murriztu dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak, berriz, 20 gutxiago izan dira; murrizketa erlatiboa % 57,1ekoa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 13 gehiago izan dira (% 32,5eko hazkundea), eta lanaldi partzialeko kasuan, 7 eskaintzakoa izan da murrizketa (% 31,8ko hazkundea).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 5 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 8 eskaintza gutxiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 86,5ek ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 624 eskaintzetatik 84k soilik zehaztu dute.



84 eskaintza horietatik, 43 unibertsitateko prestakuntza maila eskatu dute; ikasketa maila hau duten eskaintzak izan dira ugarienak. Ondoren, oinarrizko eta LHko ikasketa mailak eskatzen dituztenak daude, 18 eta 16 eskaintza erregistratu dira, hurrenez hurren. Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (7 eskaintza).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, LHko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak, bai balore absolutuetan bai balore erlatiboetan (32 eskaintza gutxiago, % 66,7ko murrizketa). Unibertsitateko ikasketa maila eskatzen dutenak 6 gehiago erregistratu dira (% 16,2ko hazkundea) eta batxilergoko ikasketa maila eskatzen dutenak % 50 hazi dira (2 eskaintza gehiago).

2020ko abuztuarekin alderatuz, eskaintza mota guztiak hazi dira unibertsitatekoak izan ezik, hauen kasuan 7 eskaintza gutxiago erregistratu dira. Unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira gehien hazi direnak balore absolutuetan (20 eskaintza gehiago, % 87,0ko hazkundea); aldiz, balore erlatiboetan, Batxilergoko ikasketak eskatzen dituzten eskaintza izan dira gehien hazi direnak (% 133,3ko hazkundea, 4 eskaintza gehiago).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena ostalaritza izan da; honen pisua eskaintza guztien % 16,0koa izan da (100 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera batzuk manufaktura industria izan dira, eskaintzen % 14,4, % 10,7 eta % 10,4ko pisuarekin (90, 67 eta 65 lan-eskaintza, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz eskaintza gehienak murriztu dira. Balio absolutuetan gehien murriztu direnak manufaktura-industriako eskaintzak izan dira (70 eskaintza gutxiago, % 52,6ko murrizketa); aldiz, balore erlatiboetan, bilakaera okerrena izan dutenak informazioa eta komunikazioko eskaintzak izan dira (% 74,1eko murrizketa, 20 eskaintza gutxiago). Bilakaera onena eduki dutenak, bai balore absolutuetan bai erlatiboetan, ostalaritzakoak izan dira (39 eskaintza gehiago, %63,9ko hazkundea).

Urte arteko saldoari erreparatuz, ia eskaintza guztiak hazi dira ere; bilakaera hoberena izan duten eskaintzak, bai balore absolutuetan bai erlatiboetan, ostalaritzakoak izan dira (86 eskaintza gehiago, % 614,3ko hazkundea).